

# Jatabeko morfologiaren azentuaz

IÑAKI GAMINDE\*

## 0. SARRERA

Artikulu honetan Jatabeko morfologiaren azentu ezaugarriak deskribatu aurrera ditugu. Bizkaiko iparraldeko doinu-azentudun barietateen barruko Getxo-Gernika barietatearen ezaugarri orokorrak oso ondo ezagutzen ditugun arren, morfemen ezaugarriei dagokienez, oraindino nahikoa geratzen zaigu jakiteko zehazki morfema bakoitzaren tasunak zeintzuk diren eta euren arabera isoglosa zehatzak egin ahal izateko.

Behar honetan azentu ezaugarriez gain deklinabide eta aditz paradigma batzuk ere emango ditugu; era honetako materialak lehenengoz aurkezten dira herri honetarako eta lagun diezagukete beraren ezaugarri linguistikoak ezagutzen.

Beharraren banaketari dagokionez, helburua eta metodologia aurkeztu eta ostean, bigarren atalean Jatabeko azentuera orokorraren ezaugarriak aurkeztuko ditugu. Hirugarren atalean deklinabidearen atzizkiak ikertuko dira. Laugarren atalean aditz morfologiaren ezaugarriak aztertuko ditugu. Azkenik, bosgarren atalean gainerako morfema batzuk ikusita, seigarren atalean beharraren hainbat ondorio irudikatuko dira.

## 1. HELBURUA ETA METODOLOGIA

Artikulu honen helburua, herri honetako barietatea ezagutzeko materialak aurkezteaz gain, izen eta aditz morfologiaren morfemen azentu ezaugarriak aztertzea eta sailkatzea da.

\* UPV Euskal Herriko Unibertsitatean.

Metodologiari dagokionez, datu gehienak gure “Jatabe Berbarik Berba” deritzon beharrerako jasotako testu libreetan oinarritzen dira; hala ere, paradigma batzuk osatu ahal izateko galdera zehatzak egin genizkien informazioa. Material guztia sistema digital batez jaso da eta ordenagailu programa batez digitalizatu eta ostean, AHOT deritzon aztergailuaren laguntzaz aztertu dugu.

## 2. JATABEKO AZENTUERA OROKORRA

Jatabeko azentuera doinu-azentudun barietateen eremuan kokatzen da, zehazkiago Getxo-Gernika izeneko barietatean. Hualdek (1997) Gernikarako emandako ezaugarrien arabera, sailka ditzakegu Jatabeko ezaugarri nagusiak ere; ezaugarriok ondoko hauek dira:

- Bereizketa lexikoa: Morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan daitezke, [+am] atzizkiek azentua aurreko silaban ezartzen dutelarik.
- Hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea. Hitzean eratorpen atzizki bortitz bat badago, atzizki honek oinarri osoaren azentuera erabakitzen du.
- [+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabak jasotzen du azentua

Morfema azentubako eta azentudunen arteko bereizketaren bidez ondoko moduko kontrasteak sortzen dira lexikoan:

txistú (txistua, txua)	txístu (txistua)
oté (otea)	óte (otea, oiloek lo egiteko)
arté (arbola mota)	árte (arte, bitarte)
sosó (zozoa)	sóso (gazbakoa)

Izen sintagmaren barruan, barietate bereko garaitako herrietan jazotzen den legez, berba azentudunen bat egonez gero, lehen azentuak erabakitzen du berorren kokagunea:

léku + ona	léku ona
dénpora + txarra	dénpora txarra
eskóla + andi	eskóla andi

Azentueraren gauzaren fonetikoari dagokion esparruan, Gaminderi (1999) jarraikirik, silaba azentudunetan H\*L azentu-tonuduna txertatzen da; lekua edukiz gero H- sintagma tonua bigarren silaban txertatzen da; azkenik, H- tonutik H\* tonuraino hedatzen da tonu altua; araua ondoko hau dugu:

%L (H-).... H\*L

Aitatuko sailkapenaren arabera izen eta adjektiboak azentubako eta azentudunen artean sailka ditzakegu; azentubakoek azaleko azentu deribatua hartzen dute azken silaban. Hona hemen izen eta adjektibo azentubakoen adibide batzuk silaba kopuruen arabera:

**o-ó:**

umé	uré	amá	lurré	oná
-----	-----	-----	-------	-----

**o-o-ó:**

laguné            mutillé            sagarrá            bedarrá            alabé

**o-o-o-ó:**

alarguné            aberatzá            biribillé            guntzurruné            txakoliñé

Izen eta adjektibo azentudunen adibideak emateko silaba kopuruak eta azentueraren kokapena hartuko ditugu kontutan.

**ó-o:**

góne            máye            léku            dénde            káfe

**ó-o-o:**

líbiru            íntxurre            ámoma            léngusu            pátate

**o-ó-o:**

otzáre            eskóle            egúski            kolláre            solómo

Aditz partizipioei dagokienez, sailkapen bera egin dezakegu; batetik, partizipio azentubakoak eta bestetik azentudunak:

**o-ó:**

erré            edán            galdú            yosí            saldú

**o-o-ó:**

erosí            ekarrí            ikusí            sorrostú            berotú

**ó-o:**

bóta            kóyu            yáusi            násta            éron

**o-ó-o:**

akába            amáta            akórda            alléga            pregúnta

### 3. DEKLINABIDE ATZIZKIAK

Deklinabidearen morfemak aztertu ahal izateko bizidunen deklinabidean ‘alaba’, ‘seme’, ‘idi’, ‘asto’, ‘katu’, ‘lagun’ eta ‘gixon’ berben paradigmak auke-ratu ditugu; berba guztiok azentubakoak dira, era honetara morfemen jokabidea azter dezakegu; bestalde ‘léngusu’ berba azentudunaren deklinabidearen bidez, berba azentudunen jokabidea erakusten da.

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>nor</b>	alabé	alábak	semé	sémek
<b>nork</b>	alabék	alábak	semék	sémek
<b>nori</b>	alaberí	alábari	semerí	sémeri
<b>norena</b>	alabená	alábana	semená	seména
<b>nogaz</b>	alabéas	alábakas	seméas	sémekas
<b>norentzat</b>	alabéntza(t)/ko	alábantza(t)/ko	seméntzako	sémentzako
<b>nagatik</b>	alabéaitxik	alákaitxik	seméaitxik	sémekaitxik
<b>nogana</b>	alabeaná	alábakana	semeaná	sémekana

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>nor</b>	idí	ídik	astó	ástok
<b>nork</b>	idík	ídik	astók	ástok
<b>nori</b>	idirí	ídiri	astorí	ástori
<b>norena</b>	idiñá	ídiña	astoná	ástona
<b>nogaz</b>	idíes	ídikes	astóas	ástokas
<b>norentzat</b>	idíntzako	ídintzako	astóntzako	ástontzako
<b>nagatik</b>	idíaitxik	ídikaitxik	astóaitxik	ástokaitxik
<b>nogana</b>	idianá	ídikana	astoaná	ástokana

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>nor</b>	légusu	légusuk	katú	kátuk
<b>nork</b>	légusuk	légusuk	katúk	kátuk
<b>nori</b>	légusuri	légusuri	katurí	káturi
<b>norena</b>	légusuna	légusuna	katuná	kátuna
<b>nogaz</b>	légusues	légusukas	katúes	kátukas
<b>norentzat</b>	légusuntzat	légusuntzat	katúntzat	kátuntzat
<b>nagatik</b>	légusuaitxik	légusukaitxik	katúaitxik	kátukaitxik
<b>nogana</b>	légusuana	légusukana	katuaná	kátukana

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>nor</b>	gixoná	gixónak	laguné	lagúnek
<b>nork</b>	gixonák	gixónak	lagunék	lagúnek
<b>nori</b>	gixonarí	gixónari	lagunerí	lagúneri
<b>norena</b>	gixonaná	gixónana	lagunená	lagúnena
<b>nogaz</b>	gixoná(g)as	gixónakas	laguné(g)as	lagúnekas
<b>norentzat</b>	gixonántzako	gixónantzako	lagunéntzako	lagúnentzako
<b>nagatik</b>	gixonáaitxik	gixónakaitxik	lagunéaitxik	lagúnekaitxik
<b>nogana</b>	gixonaana	gixónakana	laguneaná	lagúnekana

Tauletan ikusten den bezala, pluralaren morfema aurreazentuatzaila da, paradigmaren plural guztiak era berean azentuatzen dira. Bestalde, sozietatiboa, destinatiboa eta motibatiboaren morfemak aurreazentuatzailak dira.

Bizigabeen deklinabidea aztertu ahal izateko, azentubakoak diren ‘orma’, ‘etze’, ‘erri’, ‘baso’, ‘esku’, ‘lur’ eta ‘taberna’ aukeratu ditugu; azentudunetan, berriz, ‘denda’.

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>non</b>	ormán	órmatan	etzén	étzetan
<b>nora</b>	ormará	órmatara	etzerá	étzetara
<b>nondik</b>	ormáti(k)	órmatati(k)	etzéti(k)	étzetati(k)
<b>nongoa</b>	ormakó	órmatako	etzekó	étzetako
<b>norantza</b>	ormarántza	órmatarantza	etzerántza	étzetarantza
<b>noraino</b>	ormáraño	órmataraño	etzéraño	étzeteraño

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>non</b>	errín	érritxan	basón	básotan
<b>nora</b>	erriré	érritxara	basorá	básotara
<b>nondik</b>	errítxi(k)	érritxtai(k)	basóti(k)	básotati(k)
<b>nongoa</b>	errikó	érritxako	basokó	básotako
<b>norantza</b>	errirántza	érritxarantza	basorántza	básotarantza
<b>noraino</b>	erríraño	érritxaraño	basóraño	básotaraño

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>non</b>	eskún	éskutan	lurrén	lúrretan
<b>nora</b>	eskuré	éskutara	lurrerá	lúrretara
<b>nondik</b>	eskúti(k)	éskutati(k)	lurréti(k)	lúrretati(k)
<b>nongoa</b>	eskukó	éskutako	lurrekó	lúrretako
<b>norantza</b>	eskurántza	éskutarantza	lurrerántza	lúrretarantza
<b>noraino</b>	eskúraño	éskutaraño	lurréraño	lúrretaraño

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
<b>non</b>	tabernán	tabérnatan	déndan	déndatan
<b>nora</b>	tabernará	tabérnatara	déndara	déndatara
<b>nondik</b>	tabernáti	tabérnatati	déndati	déndatati
<b>nongoa</b>	tabernakó	tabérnatako	déndako	déndatako
<b>norantza</b>	tabernarántza	tabérnatarantza	déndarantza	déndatarantza
<b>noraino</b>	tabernáraño	tabérnatararaño	déndaraño	déndatararaño

Ikusten den moduan, ablatiboa, adlatibo direktiboa eta destinatiboa azentudunak dira. Kasuen funtzionamendua bera da gainerako kategoria gramatikal guztietan; jarraian erakusleak, pertsona izenordainak, leku aditzondoak eta modu aditzondoak emango ditugu.

### 3.1. Erakusleak

Atal honetan erakusleen deklinabidea ikusteko, arrunt, indartu eta berindartuen taulak emango ditugu.

#### 3.1.1. Erakusle arruntten taulak:

	HAU	HORI	HA
<b>nor</b>	au	orí	a
<b>nork</b>	onék	orrék	ak/arék
<b>nor</b>	onerí	orrerí	arí
<b>norena</b>	onená	orrená	arená
<b>nogaz</b>	oné(g)as	orré(g)as	ágas
<b>norentzat</b>	onéntza(t)/ko	orréntza(t)/ko	aréntza(t)/ko
<b>nogatik</b>	onéaitxik	orréaitxik	aréaitxik/ágaitxik
<b>nogana</b>	oneaná	orreaná	areaná

	HONEEK	HORREEK	HAREEK
<b>nor</b>	ónek	órrek	aik
<b>nork</b>	ónek	órrek	aik
<b>nori</b>	óneri	órleri	áiri
<b>norena</b>	ónena	órrena	áiña
<b>nogaz</b>	ónekas	órrekas	áikas
<b>norentzat</b>	ónentza(t)/ko	órrentza(t)/ko	áintza(t)/ko
<b>nogatik</b>	ónekaitxik	órrekaitxik	áikaitxik
<b>nogana</b>	ónekana	órrekana	áikana

3.1.2 Erakusle indartuen taulak:

	HAUXE	HORIXE	HAXE
<b>nor</b>	auxé	orixé	axé
<b>nork</b>	onexék	orrexék	arexék
<b>nori</b>	onexerí	orrexerí	arexerí
<b>norena</b>	onexená	orrexená	axená
<b>nogaz</b>	onexéas	orrexéas	axégas
<b>norentzat</b>	onexéntza(t)ko	orrexéntza(t)ko	axéntza(t)/k
<b>nogatik</b>	onexéaittik	orrexéaittik	axéaittik
<b>nogana</b>	onexeaná	orrexeaná	axeaná

**nogatik:** onexéaittik, orrexéaittik, axéaittik

	HONEEXEK	HORREEXEK	HAREEXEK
<b>nor</b>	ónexek	órrexek	áixek
<b>nork</b>	ónexek	órrexek	áixek
<b>nori</b>	ónexeri	órrexeri	áixeri
<b>norena</b>	ónexena	órrexena	áixena
<b>nogaz</b>	ónexekas	órrexekas	áixekas
<b>norentzat</b>	ónexentza(t)/ko	órrexentza(t)ko	áixentza(t)ko
<b>nogatik</b>	ónexekaittik	órrexekaittik	áixekaitzik
<b>nogana</b>	ónexekana	órrexekana	áixekana

**nogatik:** ónexekaittik, órrexekaittik, áixekaitzik

3.1.3. Erakusle berrindartuen taulak:

	BERAU	BERORI	BERA
<b>nor</b>	beráu	berorí	berá
<b>nork</b>	beronék	beorrék	berák
<b>nori</b>	beronerí	beorrerí	berarí
<b>norena</b>	beronená	beorrená	beraná
<b>nogaz</b>	beroné(g)as	beorré(g)as	beráas
<b>norentzat</b>	beronéntza(t)/ko	beorréntza(t)/ko	berántza(t)/ko
<b>nogatik</b>	beronéaitzik	beorréaitzik	beráaitzik
<b>nogana</b>	beroneganá	beorreganá	beraganá

	EUROK	EURAK
<b>nor</b>	éurok/áurok	éurek/áurek
<b>nork</b>	éurok/áurok	éurek/áurek
<b>nori</b>	éurori/áurori	éureri/áureri
<b>norena</b>	éurona/áurona	éurena/áurena
<b>nogaz</b>	éurokas/áurokas	éurekas/áurekas
<b>norentzat</b>	éurontzat/áurontzat	éurontzat/áurontzat
<b>nogatik</b>	éurokaitxik/áurokaitxik	éurokaitxik/áurokaitxik
<b>nogana</b>	éurokana/áurokana	éurokana/áurokana

### 3.1.4. A. aurrizkia gehitzen dutenak

	AAU	AORI	AA
<b>nor</b>	âu	áori	â
<b>nork</b>	áonek/áunek	áorrek	âk
<b>nori</b>	áoneri/áuneri	áorreri	ári
<b>norena</b>	áonena/áunena	áorrena	árena
<b>nogaz</b>	áonegas/áunegas	áorrekas	ágas
<b>norentzat</b>	áonentzat/áunentzat	áorrentza(t)ko	árentza(t)/ko
<b>nogatik</b>	áoneaitxik	áorreatxik	áraitxik/ágaitxik
<b>nogana</b>	áoneana	áorreana	áreana

	AONEEK	AORREEK	AAREEK
<b>nor</b>	áonek	áorrek	âik
<b>nork</b>	áonek	áorrek	âik
<b>nori</b>	áoneri	áorreri	áiri
<b>norena</b>	áonena	áorrena	áíña
<b>nogaz</b>	áonekas	áorrekas	áikas
<b>norentzat</b>	áonentzat	áorrentzat	áíntza(t)/ko
<b>nogatik</b>	áonekaitxik	áorrekaitxik	áíkaitxik
<b>nogana</b>	áonekana	áorrekana	áíkana

### 3.2. Pertsona izenordainak

Pertsona izenordainei buruz batu ditugun datuak aurkezteko multzo nagusi bi egingo ditugu pertsona izenordain arruntak eta indartuak bereziz.

	NI	HI	GU	ZU	ZUEK
<b>nor</b>	ni	i	gu	su	súek/súok
<b>nork</b>	nik	ik	guk	suk	súek/súok
<b>nori</b>	nirí	irí	gurí	surí	súeri/súori
<b>norena</b>	niré	iré	guré	suré	súona
<b>nogaz</b>	ní(g)es	íges	gúes	súes	súokas
<b>norentzat</b>	nirétza(t)/ko	irétza(t)/ko	gurétza(t)/ko	surétza(t)/ko	súontza(t)/ko
<b>nogatik</b>	níaitxik	íaitxik	gúaitxik	súaitxik	súokaitxik
<b>nogana</b>	ni(g)aná	i(g)aná	guganá	suganá	súokana

	NEU	HEU	GEU	ZEU	ZEUEK
<b>nor</b>	nau/neu	au	gau/geu	sau/seu	sáuok
<b>nork</b>	nauk/neuk	auk	gauk/geuk	sauk/seuk	sáuok
<b>nori</b>	naurí/neurí	aurí	gaurí/geurí	saurí/seurí	sáuori
<b>norena</b>	nauré/neuré	auré	gauré/geuré	sauré/seuré	sáuona
<b>nogaz</b>	náuges/néuges	áuges	gáuges	sáuges	sáuokas
<b>norentzat</b>	naurétzat	aurétzat	gaurétzat	saurétzako	sáuontzat
<b>nogatik</b>	náugaitxik	áugaitxik	gáugaitxik	sáugaitxik	sáuokaitxik
<b>nogana</b>	nauganá	auganá	gauganá	sáugana	sáuokana

### 3.3. Leku aditzondoak

Leku aditzondoak aurkezteko, erakusleekin egin dugun moduan, arruntak, indartuak, berrindarrtuak eta “a” gehitzen dutenak bereiziko ditugu

#### 3.3.1. Aditz lagun arruntak

	HEMEN	HOR	HAN
<b>non</b>	emén	or	an
<b>nora</b>	oná	orrá	ará
<b>nondik</b>	eméti	órti	ándi/ánti
<b>nongoa</b>	emekó	orkó	angó
<b>norantza</b>	onántza	orrántza	arántza
<b>noraino</b>	ónaño	órraño	áraño

#### 3.3.2. Aditz lagun indartuak

	HEMENTXE	HORTXE	HANTXE
<b>non</b>	ementxé	ortxé	antxé
<b>nora</b>	onaxé	orraxé	araxé
<b>nondik</b>	emétixe(k)	órtixek	ándixek
<b>nongoa</b>	emekoxé	orkoxé	angoxé

#### 3.3.3. Aditz lagun berrindartuak

	BERTON	BERTAN
<b>non</b>	bertón	bertán
<b>nora</b>	bertorá	bertará
<b>nondik</b>	bertóti	bertáti
<b>nongoa</b>	bertokó	bertakó
<b>noraino</b>	bertóraño	bertáraño

#### 3.3.4. “A” aurrizkia gehitzen dutenak

	AMEN	AOR	AAN
<b>non</b>	ámen	áor	ân
<b>nora</b>	áona	áorra	âra
<b>nondik</b>	ámeti	áorti	ândi(k)
<b>nongoa</b>	ámeko	áorko	ângo
<b>noraino</b>	áonaño	áorraño	âraño



### 3.4. Modu aditzondoak

Modu aditzondoei dagozkien galdetzaileak “*selan*” eta “*seloa/selau*” dira. Bestalde, erakusleetatik erakarritakoak honakook:

	Arruntak	Indartuak	Adunak
Zelan	ólan	ólantxe	áolan
	álan	álantxe	âlan
Zelakoa	ólau	ólauce	áolau
	álau	álauce	âlau

## 4. ADITZ MORFOLOGIA

Ataltxo honetan aspektu burutu, ez-burutu eta geroa egiteko erabiltzen diren baliabideak aurkeztu ostean, aditz jokatuena azentuera aurkeztuko dugu. Bestalde aditz laguntzaileetan sortu den azentuera berezia ere ikusiko dugu.

### 4.1. Aspektu burutua

Aditz partizipioa eta laguntzailea batukeran, gertatzen den aldaketa bakarra “ni”, “ri”, “si” eta “li” amaieradunen kasuan gertatzen da, izan ere, zenbaitetan azken “i” galtzen da:

ekar dot	imin siren
etor dako	ibil san
ikus gendun	ikis dau

### 4.2. Aspektu ez-burutua

Aspektu honen alomorfoak TEN, TXEN eta TAN dira. Jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk emango ditugu:

#### -TEN

Morfema hau partizipioen ondoko amaieraren arabera aukeratzen da:

-N: esaten, , egoten, yoten, emoten, yaten

-I: ekarten, yausten, etorten, yosten, ikusten

-A: ataraten, botaten

-O: yoten

-TU/-DU: eskatuten, agertuten, beratuten, eskribiduten, geitxuten, orniduten, urtuten, meiduten

"TEN"en aurrean “i” bat dagoenean, “t” palatalizatu egiten da: aukitxen, eitxen, iritxen,e.a.

#### - TXEN

Alomorfo hau “tu” eta “du”z amaituko silaba biko partizipioakaz erabiltzen da:

saltxen	lotxen
galtxen	kentxen
artxen	sartxen
eltxen	batxen

**-TAN**

Aditz partizipioa hiru silabakoa denean, “tu” edo “du”z amaitukoa, orduan alomorfo hau erabiltzen da:

mogitxan	garbittan	eskontan	konpontan
sakontan	laguntan	atrebittan	segitxan
argitxan	korritxan	apurtan	bustertan

**4.3. Geroaldia**

Aspektu honen ezaugarria “-KO” dugu nagusiki, berau aditz partizipioari erasten zaio; adibidez:

esetuko	lotuko
artuko	agertuko
erreko	ikesiko
dxoko	gordeko
ilko	eukiko

“i”z amaituko aditz partizipioakaz zenbaitetan “i” galdu egiten da: etorko, ekarko, imingo

“n”z amaituko partizipioakaz “go” erabiltzen da:

yongo	esango
yakingo	ingo
emongo	ixengo
erongo	ongo

Partizipioen silaba kopuru eta azentueren arabera aditzak jokatzean ondoko taula osa dezakegu:

Partizipioa	Lehena nik	Lehena zuk	Ez burutua	Geroa
ill	il dót	il dosú	íltxen dot	ílkot
yo	yo dót	yo dosú	yóten dot	yókot
yan	yan dót	yan dosú	yáten dot	yángot

Partizipioa	Lehena nik	Lehena zuk	Ez burutua	Geroa
erré	erre dót	erre sú	érreten dot	érrekot
edán	edan dót	edan dosú	édaten dot	édangot
galdú	galdu dót	galdu sú	gálduten dot	gáldukot
yosí	yosi dót	yosi sú	yósten dot	yósikot
saldú	saldu dót	saldu sú	sálduten dot	sáldukot
artú	artu dót	artu sú	ártuten dot	ártukot

Partizipioa	Lehena nik	Lehena zuk	Ez burutua	Geroa
erosí	erosi dót	erosi sú	érosten dot	éroskot
ekarrí	ekar dót	ekar sú	ékarten dot	ékarkot
ikusí	ikus dót	ikusi sú	íkusten dot	íkuskot
berotú	berotu dót	berotu sú	berótuten dot	berótukot
sorrostú	sorrostu dót	sorrostu sú	sorróstuten dot	sorróstukot
eskatú	eskatu dót	eskatu sú	eskátuten dot	eskátukot
garbitxú	garbitxu dót	garbitxu sú	garbítxuten dot	garbítxukot
apurtú	apurtu dót	apurtu sú	apúrtuten dot	apúrtukot

Partizipioa	Lehena nik	Lehena zuk	Ez burutua	Geroa
akába	akába dot	akába su	akábaten dot	akábakot
amáta	amáta dot	amáta su	amátaten dot	amátakot

Tauletan ikusten den moduan, aditzak jokatukeran, morfema azentudunik ez badago, azentua azken silaban kokatzen da, orain arte ikusi izan dugun moduan; partizipio azentudunetan azentua ez da lekutzen. Bestalde aspektu ez-burutua eta geroa egiteko morfema biak aurre-aurreazentuatzaileak dira.

Izenaren morfologian ikusi dugun moduan, bokalez amaituko izenekin mugatzailea asimilatu egiten da eta ez da agerian ikusten. Gauza bera gertatzen da aditz trinko eta laguntzaileen “e” morfemarekin. Morfema horren bidez pluralak adierazten dira, bai hark/haiek bereizteko, bai zuk/zuek bereizteko. Asimilazio horren ondorioz adizki mota biek bat egin dute kasu askotan (ikus bitez paradigmak eranskinean). Honelako kasuetan azentuaren bidez bereizten dira bai batzuk eta besteak:

hark-guri	doskú	haiek-guri	dósku
hark-zuri	dotzú	haiek-zuri	dótzu
zuk-hura	dosú	zuek-hura	dósu
hark-hura	dakí	haiek-hura	dáki

Plural hauen azentua aurre-aurreazentuatzailea izaten da, horretarako nahikoa silaba dagoenean; hona hemen adibide batzuk:

zuk-hura	dakixú	zuek-hura	dákixu
ni-zuri	natortzú	ni-zuei	nátortzu
ni-zuri	nabiltzú	ni-zuei	nábiltzu
hura-zuri	datortzú	hura-zuei	dátortzu

## 5. GAINERAKOAK

Gainerako morfema flexionaletan graduatzaileak (-ago, -en eta -egi) aurreazentuatzaileak dira:

	-AGO	-EGI	-EN
txarrá	txárrau	txárregi	txárrena
sarrá	sárrau	sárregi	sárrena
txikerrá	txikérrau	txikérregi	txikérrena
gogorrá	gogórrau	gogórregi	gogórrena

Ordinalak egiteko erabiltzen den “-garren” atzizkia aurreazentuatzailea da:

léleko	séigarrena
bígarrena	saspígarrena
irúgarrena	sortzíggarrena
láugarrena	bedératzíggarrena
bósgarrena	amárgarrena

Nominalizazioak egiteko -KERAN, zein gerundialak egiteko agertzen den TA aurreazentuatzaileak dira; nominalizazioak egiteko -TE, ostera, aurre-aurreazentuatzailea da:

	KERAN	TA	TEA
saldú	saldúkeran	saldúte	sáldute
kendú	kendúkeran	kendúte	kéndute
galdú	galdúkeran	galdúte	gáldute
apurtú	apurtúkeran	apurtúte	apúrtute
ekarrí	ekarríkeran	ekarrítxe	ékarte
berotú	berotúkeran	berotúte	berótute
sorrostú	sorrostúkeran	sorrostúte	sorróstute

## 6. ONDORIOAK

Flexio morfemak, barietate honetako gainerako herrietan gertatzen den bezala, lau taldetan sailka ditzakegu: azentubakoak, azentudunak, aurreazentuatzaileak eta aurre-aurreazentuatzaileak. Ikusi ditugun atzizki guztiekin ondoko taula osa dezakegu:

Azentubakoak	Azentudunak	Aurreazentuatzaiz.	Aurre-aurreazen.
artikulu sing	norantza	Artikulu plurala	-TE
nori	a-	Plural guztiak	-TEN
norena		nogas, norentzat	-KO
nogana		nogatik	
non		nondik, noraino	
nora		AGO, EGIN, EN	
nongo		GARREN KERAN, TA	

## ERANSKINA

Eranskin honetan Jatoben jaso ditugun aditz batzuen paradigmak aurkeztuko ditugu lau sailetan banatuta: laguntzaileak, trinkoak, laguntzaileen alokutiboak eta trinkoen alokutiboak.

### 1. Laguntzaileak

Aditz laguntzaileen indikatiboen taulak aurkezteko NOR, NOR-NORI, NORK-NOR eta NORK-NORI-NOR ohiko sailkapenari jarraituko diogu. Jaso ditugun adizkiak moduen arabera emango ditugu.

#### 1.1. Indikatiboa

##### 1.1.1. Nor

Indikatibo oraina	Indikatibo iragan
nas	nitzen/nintzen
as	
da	san
gara	gintze(sa)n/giñen
sara	sintzen
sare	sintzen
dire	siren/sien

1.1.2. Nor-Nori

ORAINA		IRAGANA	
HURA	HAI EK	HURA	HAI EK
dat/dast	dates/dastes	aten	atesan
dak/dana	dasak/dasena	-	-
dako	dakos	akon	akosan
daku	dakus	akun	akusen
datzu	datzus	atzun	atzusen
datzu(e)	datzu(e)s	atzu(e)n	atzuesan/atzusen
dake	dakes	aken	akesan

Paradigman agertzen direnez gain beste hauek ere erabiltzen dira: sasten, sakon, sakun, satzun, satzu(e)n, saken; yaten, yakon, yakun, yatzu(e)n, yatzun, yaken

1.1.3. Nork-Nori

NI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
	dot		saitxut	saitxuset	doas
nok/nona	dok/dona	gosak/gosena			dosak/dosena
neu	deu	gaitxu	saitxu	saitxuse	deitxu/dittu
	du		-	-	dus
nosu	dosu	gosus			dosus
nosu(e)	dosu(e)	gosus			dosu(e)s
neure	deude/de	gaitxue	saitxuse	saitxuse	dixue/dittue

Hura: daude, daudea/deudea, dea, deitxus, deure  
Haiek: dixtu

NI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
	neun/naun		sendusen	sendusen	neusen
	endun		-	-	endusen
nendun	eun/aun	gendusen	se(i)ndusen	se(i)ndusen	eusen
	gendun		-	-	gendusen
nendusun	sendun	-			sendusen
nendusun	sendu(e)n	-			senduesan
nenduen	euden/auren	genduesan	se(i)ndusen	se(i)ndusen	euresan

Hura: saun, geindun, seindun, seindun  
Haiek: sendusen, sitxusen/seittusen

1.1.4. Nork-Nori-Nori

Oraina singularra					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAI EI
	dotzet		dotzut	dotzuet	dotzet
dostek	dotzek				dotzek
dost(e)	dotzo	dosku	dotzu	dotzue	dotze
	dotzu				dotzu
dostesu	dotzesu	-			dotzesu
dostesu	dotzesu	-			dotzesu
doste(dauste	dotze	dosku	dotzue	dotzue	dotze

Oraina plurala

NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	dotze(d)as		dotzues	dotzues	dotze(d)as
dostesak	dotzesak				dotzesak
dostes	dotzos	doskus	dotzus	dotzu(e)s	dotzes
	dotzus				dotzus
dostesus	dotzesus	-			dotzesus
dostesus	dotzesus	-			dotzesus
dostes	dotzes	doskus	dotzus	dotzus	dotzes

Iragana singularra

NIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
	osten		seusten	seusten	osten
neutzen	otzon	geuntzen	seuntzen	seuntzen	otzen
	oskun				osku(e)n
neutzun	otzun				otzun
neutzuen	otzun				otzun
neutzen	otzen	geuntzen	seuntzen	seuntzen	otzen

Nik: notzon, notzun, notzun, notzen

Hark: eutzen, sotzon; saskun; otzen

Iragana plurala

NIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
	ostesan		seustesan	seustesan	ostesan
neutzesan	otzesan	geuntzesan	seuntzesan	seuntzesan	otzesan
	oskusen				oskusen
neutzusen	otzusen				otzusen
neutzuesen	otzusen				otzusen
neutzesan	otzesan	geuntzesan	seuntzesan	seuntzesan	otzesan

Hark: eutzesan, sotzesan; saskusen; eutzesan

Haiek: eutzesan; eutzesan

Nik: notzesan, notzusen, notzusen, notzesan

1.2. Baldintza ondorioak

NOR	NOR-NORI	
	HURA	HAIEK
nitxike	leskist/leskitx	leskistes/leskides
litxike	leskio	leskios/letxikios
gintxikes	leskiu	leskius
sintxikes	leskixu	leskixus
sintxikes	leskixu	leskixus
litxikes/letxikes	leski	leskis

NORK-NOR		NORK-NORI-NOR	
HURA	HAIEK	HARI (s)	HARI (p)
neuke	neukes	neskio	neskios
eunke	eunkes	eskio	eskios
leuke	leukes	leskio	leskios
geunke	geunkes	geskio	geskios
seunke	seunkes	seskio	seskios
seunke	seunkes	seskie	seskies
leuke	leukes	leskie	leskies

1.3. *Subjuntiboa*

NOR	NOR-NORI	
	HURA	HAIEK
naitxen	dakiden	dakidesan
daitxen/ditxen	dakion	dakiosan
gaitxesan	dakigun	dakigusen
saitxesan	dakixun	dakixusen
saitxesan	dakixun	dakixusen
daitxesan	dakien	dakiesan

NORK-NOR		NORK-NORI-NOR	
HURA	HAIEK	HARK (s)	HARK (p)
daiden	daidesan	daisten	daistesan
daiñ	daixen	dion/dayon	dayosan
daigun	daigusen	daiskun	daiskusen
daixun	daixusen	daitzun	daitzusen
daixun	daixusen	daitzun	daitzusen
dayen	dayesan	daitzen	daitzesan

1.4. *Ahalezkoa*

NOR	NOR-NORI	
	HURA	HAIEK
nitxe	leskist/leskitx	leskistes/leskides
intxe	-	-
leitxe	leskio/leikio	leskios/leikios
gintxikes	leskiu	leskius
sintxikes	leskixu	leskixus
sintxike	leskixu	leskixus
leitxikes	leski	leskis

NORK-NOR		NORK-NORI-NOR	
HURA	HAIEK	HARI (s)	HARI (p)
nei	neis	neyo	neyos
lei	leis	leyo	leyos
gengi	gengis	geskio	geskios
sesgi	sesgis	seskio	seskios
sengi	sesgis	seskie	seskies
leye	leyes	leye	leyes

1.5. *Agintera*

NOR	NORK-NOR		NORK-NORI-NOR	
	HURA	HAIEK	NIRI (s)	NIRI (p)
adi	ik	ixek	istek	istesak
saitxe	ixu	ixus	istesu	istesus
saitxese	ixu	ixus	istesu	istesus

Beroriketan: beitxe (hura), bei/beis (hark); beyo/beyos (hark-hari)

## 2. Trinkoak

### 2.1. Nor

EGON	JOAN	ETORRI	IBILI
nau	no	nator	nabill
au	o	ator	abil
dau	do	dator	dabill
gaus	gos	gatos	gabiltzes
saus	sos	satos	sabiltzes
sause	sose	satose	sabiltzese
daus	dos	datos	dabiltzes

### 2.2. Nor-Nori

JOAN		
NI	HURA	HAIEK
-	dost	dostes
noko	doko	dokos
-	dosku	doskus
notzu	dotzu	dotzus
notzu	dotzu	dotzus
noke	doke	dokes

  

ETORRI		
NI	HURA	HAIEK
-	datost	datostes
natorko	datorko	datorkos
-	datosku	datoskus
natortzu	datortzu	datortzus
natortzu	datortzu	datortzus
natorke	datorke	datorkes

  

IBILI		
NI	HURA	HAIEK
-	dabist	dabistes
nabilko	dabilko	dabilkos
-	dabisku	dabiskus
nabiltzu	dabiltzu	dabiltzus
nabiltzu	dabiltzu	dabiltzus
nabilke	dabilke	dabilkes



2.3. *Nork-Nor*

JAKIN		EDUKI	
HURA	HAIEK	HURA	HAIEK
dakitt/dakitx	dakies/dakides	dekot	dekodas/dekoas
dakik/dakiñe	dakixek/dakixena	dekok/dekona	dekosak/dekosen
daki	dakix	deko	dekos
dakiu	dakius	deku	dekus
dakixu	dakixus	dekosu	dekosus
dakixu(e)	dakixus	dekosu(e)	dekosus
daki(e)	daki(e)s	deke/dauke	dekes

EKARRI		EROAN	
HURA	HAIEK	HURA	HAIEK
dakart	dakardeas	darot	daroad
dakak/dakana	dakasak/dakasena	darok/darona	darosak/darosena
dakar	dakas	dar	daros
dakargu	dakargus	daru	darus
dakasu	dakasus	darosu	darosus
dakasue	dakasus	darosue	darosus
dakarre/dakarde	dakarras	dare	dares

ERABILI		ESAN
HURA	HAIEK	HURA
dabiltx	dabiltxes	diñot
dabilek/dabillena	dabixek/dabixena	diñok/diñona
dabill	dabiltzes	diño
dabilgu	dabilgus	diñu
dabiltzu	dabiltzus	diñosu
dabiltzu(e)	dabiltzus	diñosu
dabile	dabilles	diñe

2.4. *Nork-Nori-Nor*

EDUKI					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	dekotzet		dekotzut	dekotzut	dekotzet
dekost	dekotzo	dekosku	dekotzu	dekotzu	dekotze
	dekotzu		-	-	dekotzu
dekostesu	dekotzesu	-			dekotzesu
dekostesu	dekotzesu	-			dekotzesu
dekoste	dekotze	dekosku	dekotzu	dekotzu	dekotze

JAKIN					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	dakitzet		dakitzut	dakitzut	dakitzet
dakist	dakitzo	dakisku	dakitzu	dakitzu	dakitze
	dakitzu		-	-	dakitzu
dakistesu	dakitzesu	-			dakitzesu
dakistesu	dakitzesu	-			dakitzesu
dakiste	dakitze	dakisku	dakitzu	dakitzu	dakitze

EROAN					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	darotzet		darotzut	darotzut	darotzet
darost	darotzo	darosku	darotzu	darotzu	darotzo
	darotzu		-	-	darotzu
darostesu	darotzesu	-			darotzesu
darostesu	darotzesu	-			darotzesu
daroste	darotze	darosku	darotzu	darotzu	darotze

EKARRI					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	dakatzet		dakartzut	dakartzut	dakatzet
dakast	dakartzo	dakasku	dakartzu	dakartzu	dakartze
	dakartzu		-	-	dakartzu
dakastesu	dakartzesu	-			dakartzesu
dakastesu	dakartzesu	-			dakartzesu
dakaste	dakartze	dakasku	dakartzu	dakartzu	dakartze

ESAN					
NIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
	diñotzet		diñotzut	diñotzut	diñotzet
diñost	diñotzo	diñosku	diñotzu	diñotzu	diñotzo
	diñotzu		-	-	diñotzu
diñostesu	diñotzesu	-			diñotzesu
diñostesu	diñotzesu	-			diñotzesu
diñoste	diñotze	diñosku	diñotzu	diñotzu	diñotze

ERITXI
HARI
deritxet
deritxek/deritxena
deritxo
deritxu
deritxesu
deritxesu
deritxe

### 3. Laguntzaileen alokutiboak

#### 3.1. Nor

Indikatibo oraina		Indikatibo iragana	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
nok	nona	nitzon	nitzona
dok	dona	son	sona
gosak	gosena	gintzosen	gintzosen
dosak	dosena	sosen	sosena

3.2. *Nor-nori Indikatibo oraina*

HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yetek	yatena	yetesak	yetesena
yakok	yakona	yakosak	yakosena
yakuk	yakune	yakusek	yakusena
yakek	yakena	yakesak	yakesena

3.3. *Nork –Nor*

Indikatibo oraina (mutila)

NI	HURA	GU	HAIEK
	yot		yosat
nayok	yok	gayosak	yosak
	yuk		yusek
nayek	yek	gayesak	yesak

Indikatibo oraina (neska)

NI	HURA	GU	HAIEK
	yotena		yotesena/yodasena
nayona	yona	gayosena	yosena
	yuna		yusena
nayena	yena	gayesena	yesena

Indikatibo iragana

HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
neun	neuna	neusen	neusena
yon	yona	yosan	yosena
gendun	gendune	gendusen	gendusena
yen	yena	yesan	yesena

3.4. *Nork-Nori-Nor*

Indikatibo oraina, singularra (mutila)

NI	HURA	GU	HAIEK
	yotzet		yotzet
yostek	yotzek	yoskuk	yotzek
	yotzuk		yotzuk
yostek	yotzek	yoskuk	yotzek

Indikatibo oraina, singularra (neska)

NI	HURA	GU	HAIEK
	yotzetena		yotzetena
yostena	yotzena	yoskune	yotzena
	yotzuna		yotzuna
yostena	yotzena	yoskune	yotzena

#### 4. Trinkoen alokutiboak

##### 4.1. Nor

EGON		JOAN	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
nayaok	nayaona	nayok	nayona
yaok	yaona	yok	yona
gayaosak/gaosak	gayaosena/gaosena	gayosak	gayosena
yaosak/yausak	yaosena	yosak	yosena

ETORRI		IBILI	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
nayatorrek	nayatorrena	nabillek	nabillena
yatorrek/yatok	yatorrena	yabillek	yabillena
gayatosak	gayatosena	gabiltzesak	gabiltzesena
yatosak	yatosena	yabiltzesak	yabiltzesena

##### 4.2. Nork-Nor

JAKIN			
HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yakitx	yakitxena	yakides	yakidesena
yakik	yakiña	yakixek	yakixena
yakiguk	yakiguna	yakigusek	yakigusena
yakik	yakiña	yakixek	yakixena

EDUKI			
HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yekot	yekotena	yekodas	yekodasena
yekok	yekona	yekosak	yekosena
yekuk	yekuna	yekusek	yekusena
yekek	yekena	yekesak	yekesena

EKARRI			
HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yakartek	yakartena	yakardas	yakardesena
yakarrek	yakarrena	yakasak	yakasena
yakarguk	yakarguna	yakargusek	yakargusena
yakardek	yakardena	yakrdesak	yakardesena

EROAN			
HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yarot	yarotena	yarodas	yarodasena
yarok	yarona	yarosak	yarosak
yaruk	yaruna	yarusek	yarusena
yarek	yarena	yaresak	yaresena

ERABILI			
HURA		HAIEK	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yabiltx	yabiltxena	yabildes	yabildesena
yabilek	yabillena	yabiltzesak	yabiltzesena
yabilguk	yabilguna	yabilgusek	yabilgusena
yabilek	yabillena	yabiltzesak	yabiltzesena

ESAN		ERITXI	
Mutila	Neska	Mutila	Neska
yíñot	yíñotena	yeritxet	yeritxetena
yíñok	yíñona	yeritxek	yeritxena
yíñuk	yíñuna	yeritxuk	yeritxuna
yíñek	yíñena	yeritxek	yeritxena

## AIPAMENAK

- GAMINDE, Iñaki (1999): "Azentu eta Intonazioa: egoera eta ikerketa baliabideak" (agertzeko).  
 GAMINDE, Iñaki (2000): *Jatabe Berbarik Berba* (agertzeko).  
 HUALDEK, J. I. (1997): *Euskararen Azentuerak*, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gehigarriak XLII, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia.

## LABURPENA

Behar honetan Jatabeko euskararen morfologiaren azentueraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Jatabeko azentuera Bizkaiko iparraldeko doinu-azentudunen barietateen lurraldean kokatzen da. Azentueraren ezaugarri orokorrek deskribatu ondoren, azentubako eta azentudun oposaketan oinarrituko gara morfemen sailkapena egiteko. Azentu ezaugarriekin batera izen morfologiaren eta aditz morfologiaren kategoria batzuen paradigmak biltzen ditugu. Azkenik, ondorioen atalean, lau morfema mota bereiziko dira, azentubakoak, azentudunak, aurre azentuatzaileak eta aurre-aurre azentuatzaileak; era berean, hauetariko kategoria bakoitzean zein morfema kokatzen den ikusiko da.

## RESUMEN

En este trabajo se analizan las principales características del sistema acentual del euskara de Jatabe en lo que respecta a la morfología. El sistema acentual de Jatabe se encuadra en la zona de las variedades de acento de pitch del norte

de Bizkaia. Después de describir las características generales del sistema acentual, se toma como base la diferencia entre morfemas acentuados y no acentuados para poder hacer su clasificación. Junto con las características del acento presentamos los paradigmas de algunas categorías de la morfología nominal y verbal. Por último, en el apartado de las conclusiones, distinguimos cuatro tipos de morfemas, no acentuados, acentuados, pre-acentuados y pre-pre-acentuados, del mismo modo se clasifican todos los morfemas analizados de acuerdo con dichas categorías.

#### RÉSUMÉ

Sont analysées dans ce travail les principales caractéristiques du système accentuel de l'euskara de Jatabe en ce qui concerne la morphologie. Le système accentuel de Jatabe est déterminé dans la zone des variétés d'accent de pitch du nord de la Biscaye. Après avoir décrit les caractéristiques générales du système accentuel, nous avons pris comme base la différence entre morphèmes accentués et non accentués afin de pouvoir en faire la classification. Nous présentons pour accompagner les caractéristiques de l'accent, les paradigmes de quelques catégories de la morphologie nominale et verbale. Enfin, dans le paragraphe des conclusions, nous distinguons quatre types de morphèmes, non accentués, accentués, pré-accentués et pré-pré-accentués, de la même manière que sont classifiés tous les morphèmes analysés en accord avec les dites catégories.

#### ABSTRACT

In this work the main features of the Jatabe accent system in Euskara are analyzed, as regards morphology. The Jatabe accent system is classified in the area of pitched accent varieties from the north of Bizkaia. After having described the general features of the accent system, the difference between accented and non-accented morphemes is taken as a basis for the purpose of their classification. Together with features of accent, we also show the paradigms of some categories of nominal and verbal morphology. Finally, in the section on conclusions, we distinguish between four types of morphemes: non-accented, accented, pre-accented and pre-pre-accented. All those morphemes analyzed are likewise classified in accordance with the aforementioned categories.